

IKASTOLAK – EAE - Zerbitzu publikoak

**LAN-HITZARMEN BERRIAREN NEGOZIAZIOAN
MOMENTUZ EDUKIRIK EZ*****Urriaren 24ean burutu zen mahai negoziatzailean Ikastolen Elkarateak zein EIBk ez zuten lan-hitzarmena negoziatzen hasteko ia edukirik aurkeztu.***

Pasa den ostegunean burutu zen Lan-hitzarmeneko mahai Ikastolen Elkarateak eta EIBk bi berri nagusi ekarri zituzten. Batetik, Hezkuntza Sailak Errelebo Kontratuen finantzazioa egongo dela ziurtatu zuela adierazi zuten eta bestetik aurreko mahai negoziatzailean sindikatuok aurkeztu genituen eskakizun plataformei erantzuna eman zieten.

Errelebo kontratuei dagokienez, 2023ko Eusko Jaularitzaren aurrekontuetan ikastoletako Errelebo kontratuak finantzatzeko diru partida egongo dela ziurtatu zuten. Zentzu horretan, zenbateko diru partida eta zein baldintzetan emango den ez zekitela adierazi zuten. **LABetik errelebo kontratuak ahal bezain azkarren eta langileentzat baldintzarik hoberenetan ematea aldarrikatu zen berriz ere.**

“Errelebo kontratuak finantzatzeko diru-laguntza izango da hurrengo ikasturtean.”

“Hitzarmen berria negoziatzen hasteko edukirik ez zuten aurkeztu EHlk eta EIBk”

Lan-hitzarmeneko negoziatioari dagokionez, Ikastolen Elkarateak eta EIBk hitzarmen berri honen negoziatioa EAeko Hezkuntza Lege berriarekin lotu zuten. **Mahai gainean honako edukiak jarri zituzten:**

- 1) Lansariei dagokienez, azaroan administrazioak langile publikoei aplikatuko dien %1,5 igoera ikastoletako langile guztiei oinarrizko soldatan eta antzinasunean aldebakarrez aplikatuko diela aurreratu zuten EHlk eta EIBk. Administrazioak igoera abenduan aplikatuz gero, ikastolek hilabete horretan bertan gauzatuko zutela adieraziz. LABetik Madrilen UGTk eta CCOOek negoziatutako igoera hori eros-ahalmena berreskuratzeko nahikoa ez zela salatu zen. LABek negoziatio-kolektiboari loturiko gaiak – soldata barne – Euskal Herrian negoziatzeko aldarria egiten du eta eros-ahalmena bermatzeko EAEn zein Nafarroan Gobernuek duten borondate eza salatu. Horregatik, azaroan zehar gaiaren inguruko mobilizazioak deituko ditu sindikatuak.
- 2) EHlk 2011-2015 urte arteko zorrari dagokionez, 2022ko abenduaren 31 baino lehen 2012-2015 urte arteko zorra kitatzeko konpromisoa hartu zuten. Ikastolaren batean zorrak

Ikastolakgipuzkoa@lab.eus
ikastolakgipuzkoa1@lab.eus
ikastolabizkaia@lab.eus
ikastolabizkaia1@lab.eus
ikastolakaraba@lab.eus
ikastolaknafarroa@lab.eus

666779156
666775746
674137953
674137908
666774912
679146404

>irakaskuntza



ordaintzeko altxortegi arazoak baleude, bertako langile ordezkariekin zor hori bere osotasunean noiz kitatu adostea proposatu zuen.

- 3) Ikastoletako proiektu pedagogikoak garatu ahal izateko urteko lanorduen jaitsierarik ez zutela aurreikusten adierazi zuten.
- 4) Baimen eta lizentzien inguruan ez zuten ezer adierazi.

LABetik honakoa adierazi genuen:

1. Aurkeztutako edukiak ez ziren nahikoa izan.
2. Langile publikoekiko homologazio bidean KPlaren araberrako lansari igoerak.
3. Zorraren kitapena positiboa bada ere, 2011 urteko zorra ordaintzea aldarrikatu zen.
4. Urteko lanorduen jaitsiera posible eta beharrezko zela aldarrikatu zen, proiektu pedagogikoak kalitate handiagokoak dira langileon lan-baldintza hobeeekin.
5. Baimen eta lizentzien inguruan ezer ez adieraztea egokia ez zela aldarrikatu zen, areago bizitza eta enplegua uztartzeko egun kapitalak jartzen dizkigun muga guztiekin.

LABen helburua Euskal Eskola Publiko Komunitarioa eraikitzeke lan-hitzarmen duin bat erdiestea da. Horretarako negoziatio eta borrokarako bere prestutasuna adierazi zuen.

**LAB IKASTOLETAKO LANGILEEN ESKUBIDEEN ALDE!
GORA LANGILEON BORROKA!**